

Euskara eta bere etsaiak

1997ko abenduaren 27an Jose María Callejak *El Diario Vasco* egunerokoan argitaratu zuen "El euskera y sus enemigos" artikuluari zenbait ohar egin nahi dizkiot. Baina lehen lehenik argi eta garbi agertuz artikulua horren muinean zioenaz zeharo bat natorrela. Bai, bat nator hasi goitik eta behera, bereziki irakaskintzan hizkuntzarik ez politizatzeaz.

Esan beharrik ez da hizkuntz eta etnia guzien gainera dagoela edonongo gizonaren balioa. Nornahik du libre pentsatzeko eskubide osoa, ezin dezakegu onart politikak ideegatik pertsonaren hilketa eta nekez ahaztuko dugu Ortega Lara gizaia bizirik enterraturik eduki zuten lekua eta Segundo Marey-ri emandako tratua. Ez da zuzena eta inondik-inora ere onartezinak iruditzen zaizkit. Denen gainera humanismoa jartzen ez bada, edozein abere motaren azpitik jartzen gara, gizarteari eta bereziki gizartekide-tzari kalte besterik ez diogu egiten. Gainera, kontutan izan hizkuntz borrokan txikiak zer galdurik gehiago izaten duela.

Hizkuntzak errespetatu eta errespetarazi beharrezkoak dira,

bakoitzari bere naturalezak ematen dion arrazoiagatik. Inork ez bai du alde aurretik bere esku non eta zelan edo zelako jai. Bestetik, aitortu behar etorkizunari begira, eremu laburragoko hizkuntzek, mundu zabalaren aurrean, beharrezko dutela hedakuntza zabalagoa dudenak ikastea. Horrela ezik, nire ustez, ez dio lagunduko bere jatorrizkoari. Hizkuntzak orokorki errespetatu beharrezko dira. Baina, otoi, gogoan har hemen bi ditugula bertan kokatuak eta ofizial direnak eta ezer esatekorik izan dezaketanak, lehenik, bien jabe direnak direla.

Inori kontseilurik ematekotan, J. M. Callejak arrazoi osoz salatzen dituen irakasle horiei emango nizkioke, mendekurik gabe euskara irakas dezaten.

Mendekurik gabe diot, zeren duela hogehiren bat urtera arte, euskaraz mintzatzen gineno nornahik eskatzen eta behartzen ginduzten: "Hable en cristiano" esanez. Eta guk, noren aurrean eta nolako arriskioan aurkitzen ginen kontutan eduki gabe, ezin erantzun: "No sé arameo". Ez eta ere: "Hable español" esaten zigunari, ezin erantzun: "Estoy hablando la

lengua más antigua de España", zigortuak izango ginen beldurrez. Bestela horiek izaten ziren nire ohi-zko erantzunak. Hala ibili beharra genuen, zuhur jokatzuz, baina ez maltzur.

Bestalde, gutienez azken bi mende zehar eskoletan euskaraz mintzatzen ziren haurrak eraztunez zigortzen zituztela ahaztu ezinezkoa zaigu. Eta, gaur egun oraindik, Espainiako irрати nazionalean, demokraziaren izenean eta Carlos Herreraren zuzendaritzapean, goizeko bederatzirak ondotiko elkarriketetan maiz ari direla katalanaren eta euskararen aurka eta zuzenketaren bat egin nahi dugunoi ez zaigula hortarako betarik ematen. Zeren, alde zuretik galdetzen bai dute zer esan nahi duzun eta beraiei gogozko zaiena soilik hautatzen dute. Gazteleraren aldekoa noski. Hori ere jaikin behar zuen J. M. Callejak. Horren esperientzia badut, bereziki 1997ko uztailearen 24an ikastoleri buruz esan zituzten gehiegikeriak kontutan harturik. Hori ez ahal da radikaltasunaren mutur bat? Beraz, nork politizatzen du euskara? Hala ere, mendekurik ez dut gogoko. Hobe da geure euskaldungoan zuzen jarraitzea.

Bestela, nora goaz alde batekoa soilik kontutan hartuz eta bestekoa isilduz? Baina, orain horren mendekuz hasten bagera, horien gaizki eginga onartzea bezala da. Hori ez da bide zuzena. Ez inori opa, zeuretzat opa ez duzunik.

Hizkuntzak politikaz nahasteak ez dio inori onik egiten. Oroi, oraingo talde politikoek sortu baino lehenagotik hor zeudela bi hizkuntzok. Eta ez izan inor behartzezale; hobe da borondate onez arazoak bideratzea.

Hala ere, bi hizkuntzok erabiltzen ditugunok ohartzen gara, oraindik orain ere, zer nolako nekeak leporatzen ditugun zuzen derizkiogunaren alde. Eta, gertakizunok ez dira gehiegi zabaltzen gure kazetetan. Adibidez, iragan urteko ekainaren 11.ean *DV* egunerokoan euskara batuaren kontra gazteleraz agertu zen "Dudoso éxito" artikulutxoari zenbait argitasun eskainiz erantzunez eguneroko horren zuzendariari idatzi nioena, zergatik ez zen argitaratu? Batzuren gezurrak eta gehiegikeriak beste batzuren zuzenketazko oharra baino gehiago balio ote dute? Horregatik hain zuzen, oraingo hau ez diot igortzen *DV*-ren zuzendariari.

Nire gutun harek ez zuen izan tokirik zuzendariari egiten zaizkion gutunetan eta, eskubide hori eman ezaren arrazoiz, orain literatur aldizkari batean argitaratu beharrean aurkitzen naiz. Ikus *Egan*, 1997 3-4 zenbakiaren 241-243. orrialdeetan.

Etikarik gordetzen ez duten kazetarien aurrean, euskaltzain naizen aldetik, etikaz gurea gorde beharra baitut. Zeren Euskaltzaindiaren bete beharrezkoetarik bat, euskararen etorkizuna eta iraupena bermatzea baita. 1976ko otsailaren 26ko Erret Dekretuak bere hitzaurrean dioenez: "Erresumako kultura

eta altxorraren zati handi bat den eta espainiar askok erabiltzen duen hizkuntza". Alperrikakoa zitzaidan irrati nazionaleko C. Herrera jaunari hori agertzea.

Baita ere, gogoan izatekoa da 1992ko otsailean Europako Kontseiluak Europaren herrialdeetako hizkuntz gutituei buruz prestatu zuen gutunaren proiektu hura, Frantziak betoa jarri ziona eta harrezkero hor geldirik dagoena. Zer egiten dute gainerako nazioek eta gure kazetariak hori salatu gabe?

Adierazten ditudanok guti ez direlarik, kazetariok ez ahal zerate konturatzen euskaldunok oraindik ere beharturik aurkitzen garela Euskal Herriko administraritzan bertan ere erdaraz egitera?

Euskararik ez dakizutenok, eta dirudenez ikasteko asmorik ere ez, zergatik jartzen zerate guri iritziak ematen? Elebidunok ez ote dugu egoera horiek hobeto ikusteko erarik? Kontseilurik nahi baduzute, otoi, gauzak ez nahas lehendik dauden baino gehiago.

Nik ez dakit haurrak morrlean harriak eramatera behartu zituzten monitoreei buruz Kultur kontseilaritzak zer erabakiko duen, baina nere ustez, holako monitorea betiko baztertzea merezi dute. Alfabetatze eta Euskaltzauntze Koordinakuntzak (AEK), erredazioetarako

baiketa gaia erabiltzeagatik ere gauza bera esango nuke, Hezkuntza kontseilaritzak ikertu ondoren egizkoa dela ikusten bada, zeren horrelako irakasleek ez dira klaseak emateko duin. Zeren, euskararen zein gizartearen onerako, holakorik gerta ez dadin aditasunez zaindu beharra dute.

Euskaltzaindiak berak ere izan zuen holako esperientziarik eta asko gogoratuko dira 1969an Mondragoen izan genuen batzar hartaz. Talde batzuk, idazkera analisia irakasteko, euskarara itzultitako zenbait testu erabiltzen zituzten eta horietako batzuk marxista joera-koak zirelako salakuntza jaso bezain azkar mugitu ginen gauzak zuzentzera. Elkarrizketetan, batzuk esan ere bai, kultura aldetik egoki zitzaizen gai erabiltzen zutela. Baina baita ere, guk laster erantzun, errusiera irakasteko ere bertako idazle klasikoetan oinarritzen zirela eta ez Leninen testuetan. Handik aurrera, irakaskintzan erabiliko zituzten testuak, nahita-nahiez euskal literaturan klasikotzat zeudenen testuak erabiltzera beharturik ikusi ziren. Orduan, irakasle batzuk utzi zuten alfabetatzea eta guretzat kalterik ez. Gauzak zuzen bete nahi ez dituztenak erakundeetatik kanpora hobeto daudenez.

J. San Martin